

ZOZKETAREN OINARRIAK

Parte-hartzea

Zozketan 18 urtetik gorako pertsonak parte hartu ahal izango dute, euren nazionalitatea edota bizilekutzat duen lurraldea edozein direlarik ere. Adin txikikoek guraso edo tutoreak sinatutako baimenarekin parte hartu ahal izango dute.

Zozketaren data

Zozketa 2012ko abenduaren 21ean egingo da, Agifesez Ibiltzen Benta Berri zentroan (K/ Bertsolari Xalbador 4-6, behea. Antigua. Donostia) egingo duen Gabonetako festan, 10:30etik aurrera.

Nola parte hartu

Zozketan sartzeko beharrezkoa da 'Kontaiguzu zeure esperientzia baikorra' edo/eta 'Pentsamendu baikorren bilduma' ekimenetan parte hartzea, gutxienez ekarpen bat eginez <http://www.pensamosenpositivo.org/eu/parte-hartu/xehetasuna/Zure-esperientzia-baikorra-kontatu-nahi-diguzu-1> edo <http://www.pensamosenpositivo.org/eu/parte-hartu/xehetasuna/Pentsamendu-baikorren-bilduma-2> orrialdeetako formularioen bitartez. Ezinbestekoa da formularioan adierazitako eremu guztiak ("ezizena" hautazkoa da) betetzea zozketan parte hartu ahal izateko.

Nola egingo da zozketa

Zozketa publikoa izango da. Esku garbi batek bi paper aterako ditu poltsa batetik, irabazleen izenekin. Partaide bakoitzak egindako ekarpen bakoitzeko paper bat edukiko du bere izenean poltsa horren barnean. Hau da, zenbat eta ekarpen gehiago egin bi ekimenotan, orduan eta aukera gehiago izango ditu partaide bakoitzak irabazle suertatzeko.

Pertsona batek ezingo ditu bi bono irabazi. Zozketan bi aldiz izen bera ateraz gero, hirugarren paper bat aterako litzateke poltsatik.

Sariak

Nekaturreko bi bono, elkarte honen barne dauden etxeetan ostatu hartzeko. Bono bakoitzak aukeratutako landetxean bi gau pasatzeko aukera ematen du. Apartamentua hautatuz gero, egonaldia bakarrik dago eskaintzaren barne, eta logela bikoitza hartuz gero, gosariak ere barneratuta egongo lirateke bonoan. Bono bakoitza bi pertsonarentzat da.

http://www.nekatur.net/Bono-regalo.aspx?Id_Bono=1&lang=eu-ES

Irabazleekin harremanetan jartzea

Zozketa egin eta astebeteko epean, gehienez, irabazlearekin jarriko gara harremanetan e-mail bitartez. Hamabost egunetan haren erantzunik jasoko ez bagenu, edo hark saria ukatuko balu, zozketa berria egingo genuke, aldeztu aurretik iragarrita, elkarteko sentsibilizazio batzordeko bilera batean, interesa duenak gerturatu ahal izateko.

Horrez gain, irabazleen izenak Agifesen webguneetan argitaratuko ditugu, baita elkartearen sare sozialetan ere.

Oinarriak onartzea

Erabiltzaileak formularioa behar bezala osatuta bidaltzen duen momentutik zozketan parte hartzeko oinarriak onartzen ditu.